


EUSKAL AE-KO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2011KO ABUZTUA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuek % 0,2 egin dute behera 2011ko abuztuan, aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko abuztutik 2011ko abuztura) eraikuntzaren kostuak % 0,5 igo dira.

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizeak % 0,2 egin du behera 2011ko abuztuan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa % 0,5eraino igo da.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza abuztuko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2011ko abuztuan lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), baina lehengaien kostuek % 0,3ko beherapena izan dute.

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreetako lehengaien kostuek antzeko bilakaera izan dute abuztuan, baina intentsitate ezberdinekoa; aurreko hilabetearen aldean % 0,2 egin dute behera eraikuntzako kostu horiek eta obra zibilaren kostuek beherapen handiagoa izan dute, % 0,8koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera aztertuta ikusten da eraikuntzako lehengaien kostuek % 0,3 egin dutela behera baina obra zibileko kostuek % 2,8 egin dutela gora.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, energia elektrikoa, gasa eta lurina (% 21,0); petrolioaren birfinketa (% 20,0) eta metalgintza (% 8,0)

sektoreak izan dira. Baina ondoren ematen diren sektoreetako lehengaien prezioak urte batetik bestera (2010eko abuztutik 2011ko abuztura) txikitu egin dira edo igoera txikiagoa izan dute: erauzteko industriak (-% 6,4); metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (% 0,4) eta altzarien fabrikazioa eta manufakturen beste industria batzuk (% 1,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO ABUZTUA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	118,8	-0,2	0,5	0,3
ERAIKINAK	117,8	-0,1	0,0	0,1
OBRA ZIBILA	122,4	-0,6	2,4	1,4
LEHENGAIEN KOSTUA	117,8	-0,3	0,3	0,0
ERAIKINAK	116,6	-0,2	-0,3	-0,3
OBRA ZIBILA	122,3	-0,8	2,8	1,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.